

# 5. KONTENEDOREA

- Aukera hau hartzen duen familia bakoitzari balde marroi txiki bana eta kontenedore marroiko giltza emango zaie organikoa jasoteko.
- Udalerrian bi-hiru tokitan egongo dira kontenedore marroi hauok.
- Zer bota daiteke kontenedore honetara: hondakin begetal **GORDINAK BAKARRIK**, baina **inoiz ez kozinatutako janari hondakinik**, ez eta arrain edo haragi hondakinik.

**Bota daitezke:** Fruta, barazki eta ortu hondakinak.  
Pasta eta arroz hondakinak.  
Lore eta landare hondakinak.  
Ogi, gaileta eta opil hondakinak.  
Kafe eta infusio hondakinak (poltsatxoak barne).  
Kortxozko tapoiak.  
Sukaldeko paper eta arrautzontzi kartoaiak.

- Zenbat eta hondakin gehiago bota kontenedore honetara, gutxiago izango da grisera bota eta erre beharko dena.



## ZER EGIN DEZAKET NIK...

- Udalaren aurrean birziklatzeko prest nagoela agertu, udalean izena emanez. Birziklatzeko kita eta gida inongo kosterik gabe jasoko dituzu horrela!
- Organikoa banatzeko prest nagoela adierazi Udalean. Autokonposta (norbere etxean norbere kontura) edo 5. Kontenedorearen bidez.

**Dudarik badozu, zein izena emateko, deitu udalera:** 94 684 21 06  
**edota mankomunazgora:** 946842982 [www.leaibarra.com](http://www.leaibarra.com)



# Mendexan zaborrak gutxitu? NIK BAI!

## Gaur egun...

- Lea Ibarreko bost Udalerrietan ia 1.000 tonelada hondakin batzen dira.
- %18,25a **bakarrik** birziklatzen da.
- Zaborteaira edo erretzera %81,75a bota da. Honen kostua **70.000€** ingurukoa da.
- 2016. urterako %60a birziklatu beharko da.

## Birziklatu egin behar dugu...

- Ia %90 birziklatzea posible da!
- %65-70 birziklatzen ahalegindu behar genuke gutxienez!
- Birziklapen tasa horretara helduko bagina, urtean **40.000€** inguru aurreztuko genituzke. Lanpostuak sortu, inbertsioak egin, behar dutenei lagundu... hainbat gauza egiteko erabili dezakegu diru hori.

## Zelan egingo dogu...

### Ondo birziklatzen hasiko gara, horretarako udaletik...

- Informazio gida bat zabalduko da irailean.
- Erreziklajerako "kit" bat banatuko da biztanleen artean.

### Organikoa banatuko dogu, konposta eginez...

- Bi aukera doguz:
  - 5. kontenedorearen bidez
  - ala
  - Konpostajearen bidez.



## Birziklatze kita...

- Kit honekin etxean bakoitzak boluntarioki banaketa ondo egitea da asmoa.
- Gida ere banatuko da dudak daudenean zer egin jakiteko.
- Inongo koste barik.



## Organikoa banatuko dogu...

### KONPOSTAJEA

- Aukera hau hartzen duen familia bakoitzari balde marroi txiki bana emango zaie organikoa jasoteko.
- Zer bota daiteke konpostagailura: edozein hondakin organiko, bai GORDINA eta baitere KOZINATUA.

**Bota daitezke:** Fruta, barazki eta ortu hondakinak.  
Pasta eta arroz hondakinak.  
Lore eta landare hondakinak.  
Ogi, gailera eta opil hondakinak.  
Kafe eta infusio hondakinak (poltsatxoak barne).  
Kortxozko tapoiak.  
Sukaldeko paper eta arrautzontzi kartoiak.

**Eta baita ere:** Arrautza oskolak.  
Arrain edo haragi hondakinak.  
Itsaskien oskol eta maskorrak.  
Esnekiak.  
Saltsak.  
Kozinatutako hondakinak.

- Zenbat eta hondakin gehiago bota konpostajerako, gutxiago izango da kontenedore grisera bota eta erre beharko dena.

## AUTOKONPOSTA

- Bakoitzak bere kontura etxean konposta egitean datza.
- Autokonpostagailuak udalaren kontura lirake. Ortuaren edo lurrairenean gainean ipintzen da.
- Materiala sikua eta mantenimendua nor-bere kontu litzake.
- Konposta egiteko kurtsiloa, gida eta jarraipena egongo lirake udalaren eskutik eta inongo koste barik.

